ELA
EUSKAL SINDIKATUA




# POR UNA CARRERA PROFESIONAL PARA TODOS Y TODAS

## ¡Estamos a tiempo de conseguirlo!

### ¿Qué ha ocurrido desde la convocatoria de huelga del año pasado?

- El año pasado, LAB, SAE, UGT, ELA y CCOO acordamos unas reivindicaciones - entre las que estaba el reconocimiento de la carrera profesional para todo el personal, sanitario y no sanitario - y convocamos un día de huelga para el día 23 de marzo de 2023.
- Un día antes, LAB y UGT llegaron a un acuerdo con la Dirección y desconvocaron la huelga. ELA fue crítico con ese acuerdo porque no había compromisos concretos.
- Más de un año después, **en Mesa Sectorial se ha presentado un borrador de Ley Foral por el que se reconoce la carrera profesional únicamente al personal sanitario y deja fuera al 41% de la plantilla que aún no la cobra.**

ELA
EUSKAL SINDIKATUA




# GUZTIONTZAKO GARAPEN PROFESIONAL BATEN ALDE

## Garaiz gabiltza lortzeko!

### Zer gertatu da iazko greba-deialditik?

- Iaz, LAB, SAE, UGT, ELA eta CCOOk errebindikazio batzuk adostu genituen – horien artean zegoen garapen profesionala aitortzea langile guztiei, bai sanitarioei zein ez sanitarioei –, eta greba egun bat deitu genuen 2023ko martxoaren 23rako.
- Egun bat lehenago, LABek eta UGTk akordioa lortu zuten Zuzendaritzarekin eta greba bertan behera utzi zuten. ELA kritikoa izan zen akordio horrekin, konpromiso zehatzik ez zegoelako.
- Urtebete ondoren, **Mahai Sektorialean Foru Lege baten zirriborroa aurkeztu da, garapen profesionala soilik pertsonal sanitarioari aitortzen diona eta oraindik kobratzen ez duen plantillaren % 41 kanpoan uzten duena.**

## ¿Por qué ELA se opone a este borrador de Ley Foral?

- Consideramos que **es el momento de avanzar de manera conjunta en todo el sector**. Hasta ahora únicamente se ha reconocido la carrera profesional al personal facultativo y diplomado sanitario y eso ha sido discriminatorio. Pues bien, **con la nueva Ley** serán más las personas trabajadoras que tendrán reconocida la carrera, pero **la discriminación seguirá existiendo porque sigue habiendo colectivos que no tendrán reconocido el derecho**. Seguirá habiendo trabajadores/as de primera y de segunda, pero en esta ocasión con el aval sindical de LAB, SAE, UGT y Afapna, que votaron a favor de la propuesta. **Todas las categorías** somos imprescindibles para que Osasunbidea funcione y **todas merecemos la misma consideración**.
- Desde una perspectiva de género, también resulta discriminatorio el reconocimiento de la carrera profesional en los términos del borrador. En los niveles C y D, las trabajadoras no sanitarias son el 75% y en categorías sanitarias el 70%. En consecuencia, **no reconocer a las trabajadoras no sanitarias la carrera profesional ahondará en la brecha de género**.
- Además, la Ley prevé que **el 50% de la valoración de la carrera se reserva a cuestiones muy subjetivas como la "implicación" o el "compromiso"** en el trabajo. No tener criterios objetivos fomenta el clientelismo y aumenta la capacidad de presión de los mandos superiores.
- Está por ver cómo se realizará el pago de la carrera, dado que el borrador establece una implantación gradual del sistema y según las disponibilidades presupuestarias. Consideramos que **la dotación presupuestaria es esencial**, después de la experiencia de años en los que desde el sindicato hemos tenido que judicializar el reconocimiento de carreras y Osasunbidea ha retrasado el pago.

## ¿Qué propone ELA?

- No vamos a dar esta batalla por perdida. El borrador de Ley presentado tiene que ir ahora al Parlamento, será negociado y posteriormente se someterá a votación. Por tanto, **el texto no es definitivo**.
- Queremos recoger todas las firmas posibles en Osasunbidea, no solo de los colectivos directamente discriminados por el actual borrador de Ley, sino de todas aquellas personas que entienden que la carrera debería ampliarse a todo el personal. También **tenemos la oportunidad de mejorar el modelo de carrera profesional, haciéndolo más objetivo, equitativo y no discriminatorio**.
- Acudiremos con todas esas firmas al Parlamento y **haremos llegar a los grupos parlamentarios la voz de quienes entendemos que los no sanitarios deben estar dentro de esta Ley**.
- Nos movilizaremos, **presionaremos en el Parlamento pero también en la calle**.

**POR UNA CARRERA PROFESIONAL PARA TODOS Y TODAS**

**¡Estamos a tiempo de conseguirlo!**

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

## Zergatik dago ELA Foru Legearen zirriborro honen aurka?

- Gure ustez, **sektore osoan batera aurrera egiteko unea da.** Orain arte, pertsonal fakultatiboari eta diplomatu sanitarioari bakarrik aitortu zaie karrera profesionala, eta hori diskriminatzailea izan da. Bada, **lege berriarekin**, gehiago izango dira karrera aitortua izango duten langileak, baina **diskriminazioak indarrean jarraituko du, oraindik ere badaudelako eskubidea aitortua izango ez duten kolektiboak**. Lehen eta bigarren mailako langileak egongo dira, baina oraingo honetan LAB, SAE, UGT eta Afapna sindikatuek proposamenaren aldeko bozkekin. Kategoria guztiak ezinbestekoak gara Osasunbideak funtzionatzeko, eta **guztiok merezi dugu konsiderazio bera edukitzea**.
- Genero-ikuspegitik, karrera profesionala zirriborroaren arabera aitortzea ere diskriminatzailea da; C eta D mailetan, langile ez-sanitarioak % 75 dira, eta kategoria sanitarioetan % 70. Ondorioz, **sanitarioak ez diren langileei karrera profesionala ez onartzeak genero-arrakala sakonduko du**.
- Gainera, Legeak **karreraren balorazioaren % 50 gai oso subjektiboetan finkatzen du, hala nola laneko "inplikaziora" edo "konpromisora"**. Irizpide objektiborik ez izateak klientelismoa sustatzen du eta goiko aginteen presio-ahalmena handitzen du.
- Ikusteke dago garapena nola ordainduko den, zirriborroak sistemaren ezarpen mailakatua ezartzen baitu eta aurrekontuetako baliabideen arabera. Gure ustez, **aurrekontu aurreikuspena funtsezkoa da**, urteetako esperientziaren ondoren; izan ere, sindikatuak orain arte judizializatu egin behar izan ditu ehundaka karreren aitorpen, Osasunbideak ahalik eta gehien atzeratu egin izan baitu ordainketa.

## Zer proposatzen du ELAk?

- Ez dugu borroka hau galdutzat ematen. Aurkeztutako lege-zirriborroak Parlamentura joan behar du orain, testua negoziatu egingo da eta ondoren bozkatu. Beraz, **testua ez da behin betikoa**.
- Ahalik eta sinadura gehien bildu nahi ditugu Osasunbidean, ez bakarrik egungo lege-zirriborroak zuzenean diskriminatutako kolektiboena, baita karrera langile guztiengana zabaldu beharko litzatekeela uste dutenena ere. **Karrera profesionalaren eredua hobetzeko aukera ere badugu, objektiboagoa, bidezkoagoa eta ez-diskriminatzaileagoa eginez**.
- Sinadura horiekin guztiekin joango gara Parlamentura, eta **sanitarioak ez direnek lege honen barruan egon behar dutela uste dugunon ahotsa helaraziko diegu legebiltzar-taldeei**.
- Mobilizatu egingo gara, **Legebiltzarrean presioa egingo dugu, baina baita kalean ere**.

**GUZTIONTZAKO GARAPEN PROFESIONAL BATEN ALDE**

**Garaiz gabiltza lortzeko!**

ELA
EUSKAL SINDIKATUA